

Donostia, 2018ko uztailaren 13a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

ANOETAKO TAO EREMUARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoan indarrean dagoen 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Pilar Arana andreari, Anoetako TAO eremuari buruz, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN aztertutako INTERPELAZIOAREN ondorioztat.

AZALPENA

Anoetako estadioan egiten ari diren lanek arazo ugari sortu dituzte inguru horretan. Estadioaren ingurumarian dagoen hotelari eragindako kalteez gainera, gunea lanetarako erabili beharrak hainbat aparkaleku kentzea eta ingurua etengabe ixtea ere ekarri du, eta horrek ezinegona sortu du, nabarmen murriztu baita jendeak autoa bertan uzteko zuen aukera.

Gogoan izan behar da hirian leku gutxi daudela autoa aparkatzeko Anoetako eremu horretan adina aukera ematen dutenak, egunean bederatzi orduz aparka baitaiteke bertan; eta hori dela eta, hain zuzen, kanpotik Donostiara etorri eta erdigunean lan egiten duten pertsona askok erabili ohi dute, aparkalekuak disuasio-izaera baitu.

Udalinforen bidez, eskaera asko egin dira inguruan lanak egiten ari diren bitartean aparkalekua ondoko eremuetara eramateko; Errondo Pasealekura, esate baterako.

Aukera hori proposatzeko orduan, aintzat hartu beharrekoa da Errondo Pasealekuan egunean 5 orduz aparka daitekeela orain ere, eta, beraz, Anoetako lanek irauten duten bitartean behintzat, gehienezko aparkatze ordutegia zabaltzeak nabarmen hobetuko lukeela egoera.

Hil honetako batzordean, zinegotzi ordezkariak adierazi zigun ez zuela aldaketarik egiteko inolako asmorik, zeren eta aparkatze ordutegia zabaltzeak ibilgailuen txandakatzea galaraziko bailuke, eta horrek kalte egingo lieke bertako bizilagunei.

Hala ere, lanegunetan aparkaleku asko ikusten dira hutsik Errondo Pasealekuan; garrantzitsua litzateke, beraz, Anoetaren ondoko eremua erabiltzeko aukera ematea, hiriaren erdigunera lanera datozenentzat disuasio-izaerako aparkalekua izan dadin.

Hori dela eta, hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzatzen udal Gobernuari eskatzen dio azter dezala zer aukera dauden Anoetaren ondoko eremuetan TAO zerbitzuaren ordutegi-tartea zabaltzeko Anoetan lanak egiten ari diren bitartean.

Sin.: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.